


Egiaren bila



Fahrenheit 451

Jatorrizko izenburua: *Fahrenheit 451*

Egilea: Ray Bradbury

Itzultzailea: Nagore Tolosa

Argitaratze urtea: 2010

Argitaletxea: Txalaparta

ANDER IRIZAR

Ray Bradbury hil dela jakin dugun honetan, bere *Fahrenheit 451* etorri zaigu gogora, hori baita, *The Martian Chronicles* kontakizun-bildumarekin batera, idazle estatubatuarraren obrarik ezagunena. Orain bi urte argitaratu zen euskaraz *Fahrenheit 451*, jatorrizkoak argia ikusi zuenetik ia hirurogei urte joan ondotik. Iruditzen zait, ordea, inoiz ez dela berandu horrelakoak ekartzeko gure letretara; izan ere, obra klasikoa dugu *Fahrenheit 451*, urteen joanak kalterik egiten ez dien horietakoa. Zientzia fikziozko nobela distopikoa da; alegia, etorkizun utopikoa ez baizik oso bestelakoa aurkezten diguna. Kasu honetan, gizarte moderno alienatu bat, gizarte hedonista lokartu bat, non liburuak debekatuta dauden eta suhiltzaileen zeregin nagusia ez den suak itzaltzea baizik eta liburuak erretzea. Suhiltzaile horietako bat dugu Guy Montag, liburuko protagonista.

Sarritan aipatu izan da zentsura dela liburuaren gai nagusia, baina Bradbury bera haserre agertu izan zen interpretazio horren aurka. Berak zioenez, telebistak liburuei egin ziezaiekeen kaltea erabili omen zuen gogoan liburua idaztean. Edozein modutan, eta eztabaida hori alde batera utzita, ugari eta interesgarriak dira liburuak planteatzen dituen hausnargaiak: gizartearen eta gizabanakoaren arteko tirabirak, pentsamenduaren independentziarako behar ditugun lehengaiak, beldurraren eta itxaropenaren arteko borroka, gizakiaren eta naturaren arteko harremana... Zoriontasuna eta egia, azken batean; egia eta zoriontasuna. Beti-betiko gaiak, baina gure mundu moderno agertoki dutela. Liburuan ageri zaigun etorkizuna, izan ere, orainaren metafora besterik ez da, eta nago liburua argitaratu zen garaian baino metafora zehatzagoa dela gainera.

Gaztetxo garaian irakurtzeko egokitzat jo ohi den liburua dugu *Fahrenheit 451*. Eta, hala bada ere, nahiz eta liburu erraz-erraza denik ere ez zaidan iruditzen, urte batzuk gehixeago dituztenek seguruenik beste zuku bat aterako diote Bradburyren nobelari. Bizitzan esperientzia pixka bat dutenak errazago iruditzen zait iritsiko direla zientzia fikziozko istorio hutsetik haratago; behin baino gehiagotan konturatuko dira agian, liburuak duen giro berezia eta ukitu poetikoa lagun, buruarekin baiezka txikian ari direla, eta liburuan ageri diren galderak noizbait beren buruari ere eginak dizkiotela.

Euskarara ekarriak geneuzkan lehenagotik ere Aldous Huxleyren *Brave New World* (*Bai mundu berria*) eta George Orwellen *1984*; lehenbizikoa Xabier Amurizak itzuli zuen, eta bigarrena, berriz, Oskar Aranak. *Fahrenheit 451* honekin, zeina Nagore Tolosak euskara oso egokian taxutu baitzuen, esan dezakegu euskaratuak ditugula XX. mendeko hiru distopia literario nagusiak. Bada zerbait. Ez ahal ditugu klasiko ederrok ahanzturaren sagarretan erretzen utziko!